

**LANBIDE HEZIKETAREN IKASTURTEAREN HASIERA  
APERTURA CURSO FORMACIÓN PROFESIONAL**

2023-09-15 Donostia 15-09-2023

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Jaun-andreok egun on!

Eskerrik asko Lanbide Heziketaren kurtso hasierako irekiera ekitaldira gonbidatzeagatik. Ohorea da hemen zuekin guztiekin egotea.

Lanbide Heziketak eraldaketa handia bizi izan du bere sorreratik eta, bereziki, azken urte hauetan. Baina bada aldaketa horretan guztian nabarmendu nahi nukeen zerbait: prestigioa. Gizartearen aurrean irabazi duen IZEN ONA.

Ez da bat ere erraza izan. Zuen lekua irabazi behar izan duzue. Poliki-poliki egin duzue, kalitatea hobetuz eta harremanak sendotuz. Ikasle guztiak kontuan hartuz. Inor baztertu gabe. Zuen zerbitzua egunez-egun, urratsez-urrats, pixkanaka ezagutzera emanez.

Euskadiko familia eta etxe gehien-gehienetan seme-alabei ikastea beharrezkoa zela adierazten zitzairen, etorkizunean atak irekitzeko aukerak biderkatuko zitzaizkiela esanez. Aldiz, Lanbide Heziketari ekuazio horretan sartzea zaila egiten zitzaion.

Baina, urteak pasata, lortu duzue. Horixe lortu duzuela! Sekretu bakarra egon da horretarako: lan gogorra egitea. Pertsonak, hemen zaudetenok eta Lanbide Heziketaren inguruan lan egin edo egiten duzenok lortu duzue hori. Baita sorreratik atera diren milaka eta milaka ikasleek ere. Baita zuekin lanean diharduten enpresek ere. Zuek aurkitu diozue lekua gure gizartean. Ohorezko tokia, esango nuke.

Las prioridades de la Formación Profesional se han actualizado. Hoy nos encontramos inmersos en lo que quizá pueda ser la mayor revolución tecnológica de la historia.

Nos dirigimos, sin duda, hacia un modelo económico y social diferente, basado en gran medida en la tecnología, la digitalización y los sistemas inteligentes. Un modelo en el que los valores del ser humano van a jugar un papel fundamental. La Formación Profesional vasca es muy consciente de que asume una gran responsabilidad para las generaciones futuras y trabaja, desde el presente, la formación del futuro. Una formación basada también en los 17+1 que tenemos aquí en el panel. Los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible más el de Cultura-, Identidad, en un Centro Politécnico EASO donde conviven más de 45 nacionalidades en su alumnado.

Afrontáis, y afrontamos, un reto de grandes dimensiones: acompañar y preparar a las personas para que se adapten a esa transformación y para que desarrollen las competencias, aptitudes y actitudes que la nueva realidad demanda.

Estoy convencido de que, al igual que en el pasado, también hoy vais a responder de manera satisfactoria. El Gobierno, las instituciones vascas, os vamos a seguir acompañando en ese objetivo compartido.

Avanzamos hacia un Desarrollo Humano Sostenible, que garantice la formación de todas las personas y un crecimiento que genere oportunidades de empleo de mayor calidad.

Los resultados avalan la trayectoria de los centros de FP:

- Este curso, sin estar cerrada la matriculación, la Formación Profesional ha tenido un crecimiento de más del 9% en el alumnado de primer año,
- Estos últimos 7 cursos, la Formación Profesional vasca ha crecido un 30%,
- La empleabilidad en la Formación Profesional se sitúa en una media del 89%. Muchos ciclos formativos alcanzan ya el 100%, y
- Se han creado, promovidas desde los centros de FP con su alumnado, alrededor de 70 nuevas empresas.

Seguimos avanzando. Hemos realizado una inversión orientada a la transformación digital de la Formación Profesional y se van a instalar en los Centros 145 espacios inteligentes digitalizados, para que el alumnado trabaje con las tecnologías más avanzadas.

Lanbide Heziketak unibertsitatearekin duen harremanari dagokionez, 264 konexio martxan daude jada, goi-mailako 75 heziketa-zikloren eta unibertsitateko 59 graduren artean. Konexio horiek zabaltzen jarraituko dugu.

Aurrera goaz, egunez-egun, urratsez-urrats, etorkizunari begietara begira. Ideiak argi ditugu eta Lanbide Heziketa prest dago biharko erronkei erantzun egokia emateko.

Ikasturtearen hasieran, ikastetxeek, zuzendaritza-taldeek, administrazio eta zerbitzuetako langileek, irakasle eta ikasleek adierazten duzuen ilusioa, indarra eta konpromisoa pozez besarkatzen dugu. Horiek guztiak baitira heziketaren arrakastaren bermea.

Eskerrik asko!